

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

- 7614** *Hutsen eta erraten zuzenketa, honako Errege Lege Dekretu honena: 8/2013 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, herri-administrazioen berankortasunaren kontrako eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeei laguntzeko premiazko neurriei buruzkoa.*

Hutsak eta erratak aurkitu dira herri-administrazioen berankortasunaren kontrako eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeei laguntzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 28ko 8/2013 Errege Lege Dekretuan. Errege lege-dekretu hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2013ko ekainaren 29ko alean argitaratu zen, 155. zenbakikoan, eta honen bidez dagozkion zuzenketak egiten ditugu:

3. orrialdean, III. ataleko azken lerroaldean, lehen esaldian, hau dioen lekuan: «IV. kapituluak arautzen du Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak, ofizioz, baldintza subjektiboak betetzen dituzten udalerrien zerrenda argitaratzearen bitartez hasten duen prozedura.», honako hau esan behar du: «IV. kapituluak arautzen du Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak baldintza subjektiboak betetzen dituzten udalerrien zerrenda argitaratzearen bitartez ofizioz hasten duen prozedura.».

21. orrialdean, lehenengo eta bigarren lerroetan, hau dioen lekuan: «...Hogeita hamalagarren xedapen...», honako hau esan behar du: «...Hogeita hamabosgarren xedapen...».